Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko maiatzaren 18a, astelehena — 91 — Lunes, a 18 de mayo de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## VILLABONAKO UDALA

*Iragarkia*

Villabonako Udalak, 2020ko maiatzaren 12an, 2020/230 Alkatearen Dekretuz ondorengoa erabaki du:

*Lehenengoa.* «Bono txartelak tokiko merkataritza sustatzeko» ekimenaren oinarriak onartzea.

*Bigarrena.* Ekimena, 0000.226.431.50.99-2020 diru-ataletik finantzatzea gehienez ere 30.000 €tan.

*Hirugarrena.* Ekimen honen baitan egon daitezkeen finantza komisioak Villabonako Udalak bere gain hartzea.

*Laugarrena.* Ekimena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertzeko Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Juntari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezazuen argitaratzen da.

Villabona, 2020ko maiatzaren 12a.—Beatriz Unzue Esnaola, alkatea. (2120)

*«Bono txartelak tokiko merkataritza sustatzeko» ekimenaren oinarriak.*

1. *Ekimenaren helburua.*

Covid-19ak eragindako egoeraren ondorioz ixtera behartuak izan diren Villabonako Merkataritza eta zerbitzu sektoreko establezimenduak laguntzea erosketa bonoen bitartez.

2. *Ekimenaren ezaugarriak.*

— Bonoak eskuratu nahi dituen herritarrak 3 aukera izango ditu:

* 3 bono: Herritarrak 20 euro ordainduko ditu eta trukean 10 euroko 3 bono (30 €) jasoko ditu.

* 7 bono: Herritarrak 50 euro ordainduko ditu eta trukean 10 euroko 7 bono (70 €) jasoko ditu.

* 10 bono: Herritarrak 70 euro ordainduko ditu eta trukean 10 euroko 10 bono (100 €) jasoko ditu.

— Villabonako Udalak ekimen honetan, herritarrak erosten dituen bono bakoitzeko honako laguntza emango du:

* 3 bono: % 50ean diruz lagunduta.

* 7 bono: % 40ean diruz lagunduta.

## AYUNTAMIENTO DE VILLABONA

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Villabona, mediante Decreto de Alcaldía del 12 de mayo de 2020, ha resuelto lo siguiente:

*Primero.* Aprobar las bases de la iniciativa «Bonos de consumo para la promoción del comercio local».

*Segunda.* Financiación de la iniciativa desde la partida 0000.226.431.50.99-2020 en un importe máximo de 30.000 €.

*Tercero.* Asumir por el Ayuntamiento de Villabona las comisiones financieras que pudieran derivarse de esta iniciativa.

*Cuarta.* Publicar la iniciativa en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Villabona, a 12 de mayo de 2020.—La alcaldesa, Beatriz Unzue Esnaola. (2120)

*Bases de la iniciativa «tarjetas de bonos para la promoción del comercio local».*

1. *Objetivo de la iniciativa.*

Apoyar a través de bonos de compra a los establecimientos del sector comercial y de servicios de Villabona que hayan sido obligados a cerrar como consecuencia de la situación provocada por el Covid-19.

2. *Características de la iniciativa.*

— El ciudadano que desee adquirir los bonos tendrá 3 opciones:

* 3 bonos: el ciudadano pagará 20 euros y a cambio recibirá 3 bonos de 10 euros (30 €).

* 7 bonos: el ciudadano abonará 50 euros y a cambio recibirá 7 bonos de 10 euros (70 €).

* 10 bonos: el ciudadano pagará 70 euros y a cambio recibirá 10 bonos de 10 euros (100 €).

— El Ayuntamiento de Villabona prestará en esta iniciativa la siguiente ayuda por cada bono que adquiera la ciudadanía:

* 3 bonos: subvencionados al 50 %.

* 7 bonos: subvencionados al 40 %.

EK\CV GAO-I-2020-02120

* 10 bono (3 bono + 7 bono): % 42,85ean diruz lagunduta.

— Pertsona bakoitzak gehienez 10 bono erosi ahal izango ditu.

— Bonoak ekimen honetan parte hartzen duten merkataritza establezimenduetan erosketak egiteko erabili ahal izango dira.

— Erosketaren zenbatekoa balearen zenbateakoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko.

— Bonoak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.

— Bonoak 2020ko irailaren 30a baino lehen gastatu beharko dira.

*3. Merkatariek parte hartzeko baldintzak.*

Bono hauek diruz lagunduak izateko, establezimendu onuradunek bete beharreko baldintzak honakoak izango dira:

— Covid-19ak sortutako egoeraren ondorioz ixtera behartuak izan diren establezimenduak izatea. (463/2020 Errege dekretuaren arabera).

— Pertsonei zuzendutako produktu edo zerbitzuak saltzea.

— Helbide fiskala Villabonan izatea.

*4. Establezimenduak ekimenera atxikitzea.*

Establezimenduek ekimen honetara atxikitzeko www.villabona.eus web orrian argitaratuko den ekimen honetara zuzendutako eskaera orri eredua erabiliz egin beharko da.

Eskaera ereduan establezimenduak ekimen honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela adieraziko du zinpeko aitorpen bitartez.

Eskatzaileak eskaera ereduan Villabonako Udalari baimena emango dio ekimen honetan parte hartzeko establezimenduak bete behar dituen baldintzak zuzenean eta ofizioz egiaztatzeko.

Eskabideak ekimen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Villabonako web gunean argitaratutako egunaren biharamunetik hasita aurkeztu ahalko dira 3 laneguneko epean.

*5. Atxikitutako establezimenduaren betebeharrak.*

— Atxikitutako establezimenduek kanpainako informazio-materialak jasotzeko, kokatzeko eta, hala badagokio, zabaltzeko konpromisoa hartzen dute, eta establezimenduan ondo ikusteko moduan jarriko dituzte.

— Aldi berean, atxikitako establezimenduetako arduradunek konpromisoa hartzen dute establezimenduan erabilitako bonoak (edo baleak) egiazkoak direla egiaztatzeko.

— Establezimenduak bonoen zenbatekoa jasotzeko, Udalak ezarritako prozedura jarraituko du. Horretarako diseinatutako eredua erabiliz, hilero edo hamabost egunero eskaera egingo du. Eskaerari jasotako bono originalak eta bonoekin erositako produktu eta zerbitzuen tiket edo fakturak gehituko zaizkio. Udalak banku transferentzia bitartez ordainduko du bonoen balioa, dagokion prozedura jarraitu ondoren.

— Ekimen hau ahalik eta establezimendu kopuru handienera iristeko saltoki bakoitzean geheinez ere 400 bono jaso ahal izango dira. Saltokiak 400 bono jasotzen dituen momentuan, kanpainako informazio-materialak kendu eta Udalari jakinaraziko dio egoera.

*6. Bonoak erostea.*

Bonoak 16 urtetik gorako herritarrak, Amasa-Villabonan edo Aiztondo bailarako herrietan (Asteasu, Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkilen) erroldatuta daudenak erosi ahal izango dituzte. Horretarako, bonoak erosteko momentuan NA edo errolda agiria aurkeztuko da datu hau egiaztatzeko.

* 10 bonos (3 bonos + 7 bonos): subvencionado al 42,85 %.

— Cada persona podrá adquirir un máximo de 10 bonos.

— Los bonos podrán utilizarse para realizar compras en los establecimientos comerciales participantes en esta iniciativa.

— Si el importe de la compra fuera inferior al importe del bono, la diferencia no será devuelta en metálico.

— Los bonos no podrán ser canjeados en metálico ni devueltos en ningún caso.

— Los bonos deberán gastarse antes del 30 de septiembre de 2020.

*3. Condiciones de participación de los comerciantes.*

Los requisitos que deberán cumplir los establecimientos beneficiarios para ser subvencionados por estos bonos serán los siguientes:

Que se trate de establecimientos obligados al cierre como consecuencia de la situación generada por el covid-19. (Según RD 463/2020).

— Venta de productos o servicios dirigidos a personas.

— Domicilio fiscal en Villabona.

*4. Adhesión de los establecimientos a la iniciativa.*

Para que los establecimientos se adhieran a esta iniciativa se deberá utilizar el modelo de solicitud dirigido a esta iniciativa que se publicará en la página web www.villabona.eus.

En el modelo de solicitud se indicará que el establecimiento cumple los requisitos para participar en esta iniciativa mediante declaración jurada.

En el modelo de solicitud el solicitante autorizará al Ayuntamiento de Villabona a verificar de oficio y de forma directa los requisitos que debe cumplir el establecimiento para participar en esta iniciativa.

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 3 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de esta iniciativa en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de Villabona.

*5. Obligaciones del establecimiento vinculado.*

— Los establecimientos adheridos se comprometen a recoger, ubicar y, en su caso, ampliar los materiales de información de la campaña, colocándolos de forma visible en el establecimiento.

— Al mismo tiempo, los responsables de los establecimientos adheridos se comprometen a verificar la veracidad de los bonos utilizados en el establecimiento.

— Para que el establecimiento perciba el importe de los bonos seguirá el procedimiento establecido por el Ayuntamiento, mediante solicitud mensual o quincenal utilizando el modelo diseñado al efecto. A la solicitud se añadirán los bonos originales recibidos y los tickets o facturas de los productos y servicios adquiridos con los bonos, cuyo valor será abonado por el Ayuntamiento mediante transferencia bancaria, previa aplicación del procedimiento correspondiente.

— Para que esta iniciativa llegue al máximo número de establecimientos se podrán recibir un máximo de 400 bonos en cada establecimiento. En el momento en que el comercio reciba 400 bonos, retirará los materiales de información de la campaña y comunicará la situación al Ayuntamiento.

*6. Compra de bonos.*

Podrán adquirir bonos los ciudadanos mayores de 16 años que estén empadronados en Amasa-Villabona o en las localidades del valle de Aiztondo (Asteasu, Aduna, Alkiza, Larraul y Zizurkil), presentando en el momento de la compra de los bonos el DNI o certificado de empadronamiento que acredite este dato.

EK\CV GAO-I-2020-02120

Pertsona bakoitzak gehienez 10 bono erosi ahal izango ditu. (3ko bono bat eta 7ko bono bat).

— Bonoak eskuratzeko modua:

Bonoak, ekimen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Villabonako web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta ekainaren 30a bitartean eskuratu ahal izango dira, Udalak web orrian argitaratuko duen lekuetan.

Banku-txartela erabiliko da lehentasunezko ordainketa sistema gisa.

Erosleek erosten dituzten bonoen diru sarrerak Villabonako Udalak ekimen honetara bakarrik zuzenduta dagoen kontu korronte batean ingresatuko dira.

— Bonoen erabilera:

* Bonoak erosten dituzten pertsonak 2020ko irailaren 30a bitartean erabili ahal izango dituzte bonoak, kanpainari atxikituta dauden saltokietan. Epe hori igarotakoan, baliorik gabe geratuko dira bonoak.

* Ekimen hau establezimendu kopuru handienera iristeko, kanpaina honi atxikituta dauden saltoki bakoitzean gehienez ere 400 bono jaso ahal izango dira. Saltokiak 400 bono jasotzen dituen momentuan, kanpainako inormazio-materialak kendu eta ezingo du bono gehiago jaso herritarrengandik.

* Erosketaren zenbatekoa balearen zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan izuliko.

* Bonoak ezin dira eskudirutan trukatu eta ez da inola ere izuliko balio horren zenbatekoa.

— Erabiltzailearen erantzunkizuna:

Bonoak modu arduratsuan erosi eta erabili beharko dira, eta kontuan hartu beharko da bonorik edo ordaindutako zenbatekorik ez dela itzuliko berauek galdu, ahaztu edo ezjakintasunagatik sortu daitezken bestelako egoerengatik.

Cada persona podrá adquirir un máximo de 10 bonos (1 bono 3 y 1 bono 7).

— Forma de adquisición de los bonos:

Los bonos se podrán adquirir desde el día siguiente al de la publicación de esta iniciativa en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web de Villabona hasta el 30 de junio, en los lugares que el Ayuntamiento publicará en la página web.

Se utilizará la tarjeta bancaria como sistema de pago preferente.

Los ingresos de los bonos que compren los compradores se ingresarán en una cuenta del Ayuntamiento de Villabona destinada exclusivamente a esta iniciativa.

— Utilización de bonos:

* Las personas que adquieran bonos podrán utilizarlos hasta el 30 de septiembre de 2020 en los establecimientos adheridos a la campaña. Transcurrido dicho plazo, los bonos quedarán sin efecto.

* Para alcanzar el máximo número de establecimientos, en cada establecimiento adherido a esta campaña se podrá recibir un máximo de 400 bonos. En el momento en que el comercio reciba 400 bonos, se retirarán los materiales de información de la campaña y no se podrán recibir más bonos de la ciudadanía.

* Si el importe de la compra es inferior al importe del bono, la diferencia no será devuelta en metálico.

* Los bonos no pueden ser canjeados por dinero en metálico y su importe en ningún caso será de devuelto.

— Responsabilidad del usuario:

La compra y utilización de los bonos deberá realizarse de forma responsable, teniendo en cuenta que ningún bono o importe del mismo será devuelto por otras circunstancias que puedan derivarse de su pérdida, olvido o desconocimiento.